



ZARAUZKO UDALA

DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN LABURPENA

Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko ekainaren 2ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, ZARAUZKO KIROL-KLUB ETA ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2025 DEIALDIA egin zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke ([http: xxxxxxxx](http://xxxxxxx)).

Onuradunak: beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen duten irabazi-asmorik gabeko pertsonak eta entitateak.

Helburua: Zarauzko kirol-klub eta elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntza horiek euren jarduerak garatzeko erabiliko dira eta 2025 urterako izango dira (2024-2025 denboraldirako, kirol denboraldia urte naturalarekin bat ez datorren kirolean)

Oinarri arautzaileak: Kirol departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko GAO, 66 zk.).

Zenbatekoa: 6.560,00 €

Eskabideak aurkezteko epea: Udaletxeko Erregistro Orokorrean hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik kontu zen hasita.

(Itxiera)